

2023KO KUDEAKETA TXOSTENA

Taxiaren zerbitzua hobetzeko plana abian jartzeak markatu zuen 2023a. Hain zuzen, hauek izan ziren neurri nagusiak:

- Lizentzien kontrola egiteko sistema bat ezartzea, aktibitate txikia edo batere aktibitaterik ez dutenak detektatzeko.
- Taxiei buruzko Foru Legea aldatzeko neurriak, soldatapeko langileak kontratatzea malgutzeko helburuarekin.
- Teletaxi San Ferminen igorgailu-zerbitzua eskuragarri edukitzeko neurriak, soldatapeko taxi-gidariantzat.
- 7, 8 eta 9 plazatako baimendutako ibilgailuen kopuru maximoa handitzea.
- Gutxieneko zerbitzuak ezartzea tren-geltokian.
- Tren-geltokiko geralekua egokitzea, barne hartuta taxi-geralekua babesteko bidea emango duen pergola bat kokatzea.
- Eurotaxien 20 lizentzia gehiago emateko plana. 2023an, behin-behineko esleipena eman zitzairen 18 pertsonari eta espero da 2024an zehar egotea aktibo lizentzia horiek.

Halaber, 2023ko irailaren 7an, hitzarmena izenpetu zuten Iruñeko Udalak eta Iruñerriko Mankomunitateak, Iruñeko sarbide murriztuko eremuetan taxien altak eta bajak kudeatzeko eta taxiaren zerbitzua hobetzeko tren-geltokian.

Bien bitartean, zerbitzuen eskaerak handia eta handituz doana izaten jarraitzen du, eta hala islatzen da **eskaeraren araberako taxi-zerbitzu erregularretan**, zerbitzu hitzartuen antzeko berreskuratzea izan baitute. Iruñeko **espeterako zerbitzuak** 4.741 pertsona garraiatu zituen 2.503 zerbitzutan, eta, horrenbestez, batezbestekoa egunean 6,86 zerbitzuko eta 12,98 erabiltzailekoa izan zen. **Aireporturako zerbitzuak**, berriz, 5.795 pertsona garraiatu zituen 3.324 zerbitzutan, eta, beraz, batezbestekoa egunean 9,11 zerbitzuko eta 15,88 erabiltzailekoa izan zen.

Zerbitzuaren datu nagusiak

Flota

	2021	2022	2023
Ibilgailuak, guztira	318	318	318
Ordezko ibilgailuak	3	3	3
Eurotaxiak (egokituak)	24	23	23
Ibilgailu ekologikoak	161	190	213
Ibilgailu estandarrek	130	102	79
Batez besteko antzintasuna	4,7	4,8	4,8

Azpiegitura

	2021	2022	2023
Geraleku-kopurua	42	42	42
Plazen kopurua	275	275	275

Taxi-bidearen kilometroak	3,5	4,6	436
---------------------------	-----	-----	-----

Izapideak

	2021	2022	2023
Gidari-baimen berriak	30	24	44
Transmisioen kopurua	8	14	13
Ibilgailu-berritzeen kopurua	39	39	36
Bisen eta ohiz kanpoko ikuskatzeen kopurua	41	2	34
Erreklamazioen kopurua	53	73	127